

# Agirre lehendakaria, in memoriam

Jose Antonio Rodriguez Ranz

**M**ilaka eta milaka euskaldunen bihotzetan eta oroimenetan bizirik, lore eskaintza anoni-moak bere hilobian Donibane Lohitzuneko kanposantuan, bere aldeko otoitz eta urteurrenoko mezak, gure hainbat eta hainbat herritako plaza eta kaleei bere izena ipinita, argitalpen batzuk, erakusketaren bat edo beste...; honelaxe gogoratu dugu Agirre lehendakaria 1960ko martxoaren 22az geroztik.

Aurten, bera hil zela 50 urte betetzen diren honetan, beste urrats bat eman nahi izan da: Agirre lehendakariari –euskaldunok historian izan dugun lehen lehendakariari, Euskadik XX. mendean izan duen politikaririk garrantzitsuenari– dagokiona, zor zaiona, eman, aitortu eta eskertzea. Agirre eta bere belaunaldi osoa balioan jarri nahi izan dira, atzera begira jartzerakoan etorkizunari atea ireki, haien ibilbidean zutarririk izan zirenak –demokrazia, askatasuna, humanismoa, justizia soziala, europeismoa, irismen unibertsala, aniztasuna, burujabetza, bakea, elkarrizketa...– guretzat, XXI mendeko euskaldunentzat, bide-orri ezin hobea osatzen baitute.

Horrexegatik eta horretarako Batzorde Antolatzaile anitza eratu, programa zabala prestatu, eta web orri aberats eta erakargarria –www.lehendakariagirre.eu, Agirrerren leihoa zabalik munduratu da. Hauexek guztiek Agirrerri –pertsonei, politikariari, lehendakariari– hurbiltzen lagunduko digute. Ni, nire aldetik, ziur nago, hurbiltzean berehala honakoaz ohartuko garela: 50 urte geroago Agirrerren izpirituak bizirik dirauela, 50 urte geroago Agirrerren bihotzak taupaka darraiola. Baina, nor izan zen Jose Antonio Agirre?

## 👉 "Mutiko hura!" 👈

Bilboko San Joan parrokian 1904ko martxoaren 6an bataiatutako jaioberri hark, Urduñako jesuitetako ikasle hark, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbideko ikasle hark, Athleticeko jokalaria hark, abokatu gazte hark... Jose Antonio Agirrek bazuen zerbait. Gazte-gaztetatik konprometitu zen, eta bere bizitzari zentzua eman zioten kausa bietako militante gogotsua izan zen: Jaungoikoa eta Euskadi, erlijioa eta aberria, kristau-humanismoa eta askatasuna. Agirre gaztea Bizkaiko gazte katolikoaren buru izan zen eta Bilboko *Juventud Vasca*ren zuzendaritzako kide ere bai. Jadanik antzematen zitzaion buruzagi-etorria zuela, eta laster izango zen.

Ezagutza eta ospea 1931n etorri zitzaizkion. Besteak beste: 31ko udaberrian, 27 urte baino ez zituela, Agirre Getxoko alkate hautatu zuten; Euskal Errepublika aldarrikatu zuen; lau lurraldeetako Alkateen Batzordeko buru izan zen, bai eta Lizarrako Estatutua ekarriko zuen Udalen mugimenduko aitzindari ere; eta 1931ko irailean behin-behineko gobernuko presidentea eta, gero, Errepublikako presidentea izango zen Niceto Alcalá-Zamora Jn.ari Lizarrako Estatutuaren ale



bat ematera Madrilera joandako 420 euskal alkateko ordezkartzako buru. Bitartean, Agirre diputatu ere aukeratu zuten Bizkaitik eta Nafarroatik –Bizkaiko aktari uko egin zion– 1931ko ekainaren 28an egindako Gorte Konstituziogileetarako hauteskundeetan, eta Diputatuen Kongresuan euskal taldearen idazkari aukeratu zuten.

“Mutiko hura” –Irujoren esapide txeratsua– herriaren gizon bihurtuta. Ez ezer berezirengatik... eta denagatik. Agirre gaztea ez zen goiargitua, ez ameslaria. Kemena, ilusioa, borroka-sena, berezko begikotasuna, jendetasuna, barne indarra, gizatasuna, zuzentasuna, zubigintzarako sena... Horiexek haren dohainak; konfiantza iradoki eta berotasuna ematen zuen nortasun aparta baten dohainak; beretarrek maitatua eta guztiek errespetatua.

### 👉 “Zin dagit” 👈

Eta 32 urte besterik ez zuela lehendakari aukeratu zuten. Lehendakaria 32 urterekin! Lehendakaria, gainera, inguruabarririk latz eta dramatikoen: gerra. Eztia eta behazuna. Ohorea eta samina. Lurraldearen heren bi etsaiak armen indarrez okupatuta zeukan herrialde bateko lehendakaria; Errepublikari leial iraun zuten indar politikoek –EAJ, PSOE, EAE, PC, Izquierda Republicana eta Unión Republicana– osatutako batasun nazionaleko gobernu baten liderra; zailtasunak zailtasun, politika eraikitzailea aurrera eramaten saiatu zen gobernu baten presidentea. Baina..., metrailadoreak ehiza-hegazkinen aurka, arrantzontziak fragaten aurka, nahia indarraren aurka...; oraingoan Dabid ezin izan zitzaion gailendu Goliati, Euskadik, ordea, bere burua gobernatzen zuen Euskadik (Bizkaia), ondo gobernatzearen eta duintasunaren eredu ederra erakutsi zion munduari.

Porrotak heriotza, kartzela, errepresioa, klandestinitatea... ekarri zituen, eta lehendakariarentzat –eta milaka eta milaka euskaldunentzat–, erbestaldi luze eta mingarri bat. Erbestaldi hura, gainera, are gogorrago egin zuen beste tragedia batek: II. Mundu Gerrak. Gogorra benetan izango zen lehendakariarentzat nazien jazarpenetik ihes egiteko, gezurrezko identitate bat –Jose Andrés Álvarez Lastra doktore panamarrarena– hartu beharra eta epopeia arriskutsu bat hastea familiarekin batera –Mari Zabala, emaztea, eta seme-alabak, Joseba eta Aintzane, azken hori 2 urtekoa baino ez–! Oroitzapen triste eta mingarri betetako kutxarekin abiatu zen. La Panne, Hanburgo, Berlin, Goteborg, Río de Janeiro, Montevideo, Buenos Aires eta, gero

ere, New York izan ziren Agirreren urte eta erdiko “gurutze-bide” berezi hartako geldialdiak; baina oraingo honetan, hizpide dugun honetan, gurutze-bidea Mundu Berrian amaitu zen.

### 👉 “O líder de todos nós” 👈

Castelaoren hitzetan horixe zen Agirre: “O líder de todos nós”; esapide horrek galiziar politikari nazionalistarentzat nagusiki gauza bi esan nahi zituen: bateko, Agirre zela estaturik gabeko



nazioen buruzagia –“Galeuzcaren buru ezba-rik gabea”–, eta besteko, Agirre zela “Espainian ordena demokratikoa ezartzeko” esperantza nagusia. Castelaok honela zioen: “Espainian politika eraginkorrik egin nahi bada, zu zara giltzarria [...] eta itzuleraren ordua iritsitakoan, denek bilatuko zaituzte, zeurekin batera lehorreratzeko”.

Agirre, dagoeneko, erbestaldiko euskal lehendakaria ez ezik, estatu-gizona ere bada eta 40ko hamarkadako nazioarteko politikagintzako erreferentea. Lagin bi baino ez, erakusgarritzat: 1942ko azaroan “Munduaren krisiaren zuzuan” adierazpena izenpetu zuen AEBetan erbesteratutako beste 42 intelektual eta politikarirekin batera –besteak beste, Luigi Sturzo, europar kristau-demokraziaren aita, eta Jacques Maritain, frantziar katoliko intelektuala–, eta handik urte bira, zazpi Nobel saridunekin batera, “The American Nobel Comitee”k antolatutako “Gerraosteko munduan bakean hezi” izenburuko ekitaldian hitz egin zuen.

Horixe da Ameriketara bizi izandako lehenda-biziko erbestaldiko Agirre. Irujok ondo esango zuen bezala: “Izen hori, ospe hori eta agintaritzaren hori jadanik ez dira oso-osorik gureak, ez dira euskaldunonak bakarrik”. Eta Ludger Mees historialariak zera gehituko du: “Lehendakaria artean ez zen beste gabe euskal politikari bat, espainiar errepublikanismoaren eta nazioarteko demokraziaren ordezkari garrantzitsua bat bilakatua baitzen”.

## “Baikortasun ezin hautsizkoa”

1945eko martxoaren 27an Agirre lehendakaria Parisera heldu zen AEBetatik. Handik lau egunera euskal alderdi politikoek eta sindikatuek Baionako Ituna izenpetu zuten. Ez zuen inorengandik irakaspenik behar. Agirrek nazio-batasunaren sena ADNan zeraman, bere kultura politiko demokratiko eta antitotalitarioaren lehen osagaia zuen.

Kontinente Zaharrera itzultzeak eta Bigarren Mundu Gerra amaitzeak Agirreraren bokazio europazalea biziberritu zuten. 1948an Hagako Batzarrean parte hartu zuen, Landaburu eta Juan Carlos Basterrarekin (EAE) batera –behatzaile gisa izan bazen ere–; batzar hartan Europa berriaren zimen-duak ezarri zirelarik. Urte bat lehenago, Agirre NEI delakoan Ohorezko Batzordeko kide hautatu zuten. NEI edo Nazioarteko Lantalde Berriak Europako erakunde kristau-demokratik garrantzitsuena zen, eta EAJ beraren kide sortzaileetarikoa bat. Erbestean zegoen lehendakari bat eta herri txiki bat Europa berriaren eta nazioarteko kristau-demokraziaren bihotzean!

Ametsa, alabaina, geldi-geldika amesgaizto bihurtzen joan zen; itxaropena, etsipen; konfiantza, saldukeria. Agirreraren bizitzako egunik tristeenetako bat, zalantzarik gabe, 1951eko ekainaren 28a izan zen. Egun hartan polizia frantsesak Eusko Jurlaritzaren eta Euskaldunen Adiskideen Nazioarteko Liga egotzi egin zituen Marceau etorbideko egoitzatik. Indarrezko irtenaraztea izan zen..., eta are txarragoa. Erabakiak lehendakariari “erbestaldian jasandako saminik sakonena eragin zion, batez ere erabaki hori hartu dutenak askatasunaren eta demokraziaren kausaren alde, saminean eta sakrifizioan alboan eduki ditugun adiskideak izan direlako”. Vatikanok eta Francoren Espainiak euren arteko konkordatuaren izenpetzeak eta Eisenhower eta Diktadorea Madrileko kaleetan jendetzaren goraka artean ikusteak Jose Antonio Agirreraren sententzia berretsi zuten.

Erbestaldi luzea eta amaiera mingarria; baina lehendakariak halako gauza guztiei bere betiko “baikortasun ezin hautsizkoa”rekin jarkitzen segituko zuen. Prietok, euskal abertzaletasunaren “piztia beltza”k, lehendakariaren gaineko *El Socialistaren* orrialdeetan idatzitako hilberri hunkigarrian adierazi bezala, “sinetsita zegoen ekidin ezinezko porrotaren unera bertara arte, eta uste izan zuen “hondamendia”ren ondoren geure askatasunak berreskuratuko genituela. Itxaropen horrekin hil da”.

